



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK

1. Inmigratio-teknikariak kontratatzeko jarraitzeko (TEC lerroa) eta inmigratioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak (LOC lerroa)..... 2
2. Pertonekin, familiarekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak 3
3. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntza 5
4. Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adopzio aurreko bizikidetzarako babes ordezkarizagatiko, babesagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa..... 6
5. Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa..... 9
6. Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak..... 13
7. Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak 14
8. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko diru-laguntza..... 15
9. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak..... 16
10. Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak 17



1.- Izenburua

Inmigrazio-teknikariak kontratatzeko jarraitzeko (TEC lerroa) eta immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak (LOC lerroa)

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 21ekoa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez onartzen dira immigrazioko teknikarien kontratazioaren jarraipenerako eta erakunde publikoek immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak, eta laguntza horietarako deialdia egiten da 2017. urterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen helburua da toki-erakundeek beren ekimenez immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean egiten duten esku-hartze soziala bultzatzea.

Laguntza-programak bi lerro ditu:

- TEC lerroak honako kontratu hauetako immigrazio-teknikarien kontratazioa finantzatuko du: 2016an indarrean egonik, alor horretako giza baliabideak eskura izateko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarik jaso duten kontratazioak. Lerro honetara bideratutako partida 381.920 €-koa da.
- LOC lerroak immigrazioari eta kulturarteko bizikidetzari buruzko jarduerak prestatzea, gauzatzea edo ebaluatzea finantzatuko du. Lerro honetara bideratutako partida 498.080 €-koa da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio-tresna sendotzea, harreraren eta integrazioaren alde (TEC lerroa). 1 magnitudea.
2017an, 14 immigrazio-teknikarik jaso dituzte diru-laguntzak, 11 erakunde publikotan; guztira, 353.276,00€.
- Kulturartekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko bitartekoak ezartzea (LOC lerroa). 1 magnitudea.
2017an 31 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 30 erakunderi eman zaie diru-laguntza; guztira, 497.816,70€.



1.- Izenburua

Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gauzatu behar diren esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

- AGINDUA, 2017ko martxoaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako 2017ko deialdia egiten da.
- AGINDUA, 2017ko uztailaren 12koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez 2017. urterako egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia, esku-hartze sozialerako jakintza kudeatzeko jardueretarakoa.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Abenduaren 4ko 271/2012ko Dekretuaren arabera, halaber, sustatze-lan horretan Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bere berariazko erantzukizuneko ikuspegiak eta zeharkako politikak hartu behar ditu kontuan batez ere, hala nola gizarteratzearekin, familiarekin, haurrekin eta nerabeekin, immigrazioarekin, dibertsitate eta askatasun afektibo eta sexualarekin lotuta daudenak, baita desgaitasunarekin eta mendekotasunarekin, adinekoekin eta, bereziki, genero-berdintasunarekin lotuta daudenak ere.

Gizarte esku-hartzearen esparrua osatzen dute jende guztiaren autonomia pertsonalaren sustapen eta babesera eta integrazio komunitariora bideratutako jarduerak, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo horiei buruzkoak badira: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea; familiaren babesa; haurrak eta nerabeak zaindu eta babestea; etorkinen integrazioa eta, oro har, kulturartekotasuna; adinekoak zaintzea eta babestea; mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaindu eta babestea eta, oro har, desgaitasun-egoeran daudenak; eta askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzen hiru lerro hauetarako hasierako diru-zuzkidura 4.792.480 €-koa izan zen, eta jarduerak finantzatzeko erabilitako azken zenbatekoa 4.765.658 €. Guztira, aurkeztu ziren 539etatik, 343 jarduerari eman zaie diru-laguntza, 225 entitateri guztira.

Erabilgarritasunari eta gizarte-eraginari dagokionez, azpimarratu liteke jarduera horiek sare-lana sustatu eta indartzen dutela gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren garapenean esku hartzen



duten erakundeetako eta gizarteko eragileekin; bereziki pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartzea sustatzen.

Programen eta bilatutako helburuen betearazpen eta betetze-mailari dagokionez, esku-hartze sozialeko 200 proiektu diru-laguntza jaso dezatela aurreikusten zen; baieztatu daiteke zehaztutako helburua bete dela; izan ere, 343 proiektuk jaso baitute diru-laguntza.



1.- Izenburua

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntza

2.- Araua

- 1/2004 LEGE Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- AGINDUA, 2014ko urriaren 29koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena (1/2004 Legea, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako diru-laguntza programarekin, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak ezartzean, biktimei iraupenerako gutxieneko baliabideak ematea lortu nahi da erasotzailearengandik modu independentean bizitzea ahalbidetuko diotenak lan bat bilatu arte, beren egoeratik (adina, prestakuntza edo espezializazio faltagatik eta bestelakoak) uste da lana bilatzeko arazoak izango dituztela. Baliabide ekonomikoak bermatu behar dira emakume biktimen gizarteratzea errazteko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017an 273 laguntza-eskaera jaso ziren: 2017an jasotakoak 248, beste 25 gehiago aurreko urtean ebatzi gabe gelditu zirenak.

273 eskaera hauetatik, 236 ebatzi dira (170 onartuak izan dira eta 66 ukatuak) beste 23 ebatzi gabe gelditu dira 2018 urtean ebazteko.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzen aurrekontua 2017 ekitaldirako 1.100.000 eurokoa izan da. Kopuru hau ia bere osotasunean gastatu da, %98a, zehazki 1.068.408 euro.



1.- Izenburua

Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adopzio aurreko bizikidetzarako babes ordezkarizagatiko, babesagatiko eta mantenuagatiko laguntzen programa

2.- Araua

- 176/2002 DEKRETUA, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (2002ko abuztuaren 7ko EHAA, 148. zk.).
- 416/2005 DEKRETUA, abenduaren 20koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuaren indarraldia luzatzen duena (2005eko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.).
- 109/2006 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jai edo adoptatzeagatiko diru-laguntza arautzen duena (2006ko ekainaren 7ko EHAA, 107. zk.).
- 255/2006 DEKRETUA, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (2006ko abenduaren 27ko EHAA, 245. zk.).
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).
- 30/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- AGINDUA, 2015eko uztailaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Ardurapean seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoei buruzko martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak (2015eko uztailaren 3ko EHAA, 124. zk.).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurreko Dekretuen xedea familientzako diru-laguntzak arautzea da, jaiotzagatiko, adopzioagatiko, tutela eta adoptatu aurreko familia-harreragatiko seme-alaba kopurua handitzeak dakartzan zailtasunei erantzuten laguntzeko, eta horrela lagunduko da familiek nahi dituzten adina seme-alaba edukitzen.

30/2015 Dekretuan honako jardun-ildo hauek azaltzen dira:

- Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko diru-laguntzak.
- Erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko diru-laguntzak.
- Nazioarteko adopzioagatiko diru-laguntzak.



30/2015 Dekretuak sartu duen berrikuntza nagusia da errenta estandarizatuaren irizpidea aplikatzea, programaren bidez emango diren laguntza guztien zenbatekoa zehazteko. 255/2006 Dekretuan irizpide hori laguntza ekonomiko jakin batzuei baino ez zitzaien aplikatzen, hain zuzen ere lehen semeagatik edo alabagatik jasotzen den laguntzari eta erditze anizkoitzagatik edo nazioarteko adopzio anizkoitzagatik jasotzen denari.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko aurrekontuan, programari 31.071.814,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 25.771.950,00 eurokoa izan zen (%82,94), honela banatuta:

- 25.706.450,00 euro 30/2015 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira; laguntzetatik 32.262, ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzak izan ziren; 370, erditzeagatik edo adopzio nazional anizkoitzagatik laguntzak; 29, nazioarteko adopzio sinpleagatik, eta 2, nazioarteko adopzioagatik laguntzak. 255 kasutan onartu zen % 33ko edo goragoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortzearen ondoriozko diru-laguntzak bikoiztea. Ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntzei dagokienez, 9.086 laguntza lehen semeagatik edo alabagatik eman ziren; 13.512 laguntza, bigarren semeagatik edo alabagatik, eta 9.664, hirugarren edo ondorengo semeagatik edo alabagatik. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren %17,33 (4.455.500,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, %32,39 (8.324.950,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta %50,28 (12.926.000,00 euro) Bizkaiko espedienteek.
- 65.500,00 euro 255/2006 Dekretua aplikatuz emandako laguntzak dira; laguntzetako 1 ardurapeko semeagatiko edo alabagatiko laguntza izan zen. Era berean, 78 espedientetan onartu zen %33ko edo goragoko desgaitasunengatik laguntzak bikoiztea. Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, gastuaren %6,72 (4.400,00 euro) Arabako espedienteek eragin zuten, %13,43 (8.800,00 euro) Gipuzkoako espedienteek, eta %79,85 (52.300,00 euro) Bizkaiko espedienteek.

Seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik eta mantenuagatik ematen diren laguntzen programak eragin handia eduki du gizartean abian jarri zenetik; horren adierazgarria da aldi jakin batean EAEn izandako jaiotzen eta aurkeztutako eskaeren arteko diferentzia, hau da, programaren estaldura-tasa. Fitxa hau egin denean ez dugu eduki 2017an izandako jaiotzei buruzko informazio guztia; beraz, 2016ko datuak erabili ditugu. EUSTATEk emandako informazioaren arabera, 2016an 18.316 jaiotza izan ziren, eta 16.808 hasierako eskaera aurkeztu ziren. Horietan 17.309 haurrentzako diru-laguntza eskatzen zen. Horrek esan nahi du estaldura-tasa %94,50 izan zela.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez,



adierazi behar dugu seme-alabak dituzten familiei diru-laguntzak emateko 2017ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura eguneratzen duen aginduaren izapidetzea dela eta egindako memorian diru-laguntza horietarako aurrekontu-memorian bildu ziren magnitudeak eguneratu zirela, hain zuzen ere onuradunei zegozkien magnitudeak. Ondoren 176/2002, 255/2006 eta 30/2015 dekretuak aplikatuz ematen diren laguntzen programarako ezarritako adierazleak, laguntzen magnitude eguneratuak eta haien gauzatze-gradua xehatuko dira:

- Adierazlea: lehen semea edo alaba jaiotzeagatik ematen den laguntza/prestazio ekonomikoa. Magnitudea: 11.035. Emandako laguntzak: 9.086. Gauzatze-gradua: %82,34.
- Adierazlea: bigarren semea edo alaba jaiotzeagatik ematen den laguntza ekonomikoa. Magnitudea: 15.347. Emandako laguntzak: 13.513. Gauzatze-gradua: %88,05.
- Adierazlea: hirugarren semea edo alaba eta ondorengoak jaiotzeagatik ematen den laguntza ekonomikoa. Magnitudea: 11.091. Emandako laguntzak: 9.664. Gauzatze-gradua: %87,13.
- Adierazlea: erditze anizkoitzagatik, adopzio anizkoitzagatik, adopzio aurreko harrera anizkoitzagatik, tutela anizkoitzagatik edo nazioarteko adopzioagatik ematen den laguntza ekonomikoa (laguntza hau ezohikoa eta puntuala da; azaldu diren egoerek eragiten dituzten ezohiko gastuei aurre egiteko ematen da). Magnitudea: 624. Emandako laguntzak: 401. Gauzatze-gradua: %64,26.
- Adierazlea: semea edo alaba jaiotzeagatik, adopzioagatik, adopzio aurreko harreragatik, tutela eta haren mantenuagatik ematen den prestazio ekonomikoa bikoiztea, desgaitasuna onartuz gero. Magnitudea: 726. Emandako laguntzak: 333. Gauzatze-gradua: %45,87.



1.- Izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko langileentzako laguntzen programa

2.- Araua

- 177/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (ekainaren 7ko EHAA, 129. zk.).
- 2010eko ekainaren 30ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.
- 154/2012 DEKRETUA, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa (2012ko abuztuaren 6ko EHAA, 152. zk.).
- 31/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa (martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- 32/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzekoa (2015eko martxoaren 30eko EHAA, 60. zk.).
- AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako familia-errenta estandarizatuaren atalaseak, laguntzen zenbatekoa eta portzentajea eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak.
- 2/2017 legea, apirilaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017, urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena (EHAA zbia, 74,2017ko apirilaren 19), zeinaren seigarren xedapen gehigarriaren arabera onartzen den zenbatekoaren % 5eko murrizketa, 177/2010 Dekretuan inarrituta.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programako diru-laguntzek helburu hauetako bat dute: seme edo alaba adingabeak edo mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeagatik hartutako lan-eszedentziek edo lanaldi-murrizketek eragindako diru-sarreraren galera konpentsatzea, zati bat behintzat; edo, bestela, hiru urtetik beherako semea edo alaba etxean zaintzeko pertsona bat kontratatzeak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzea.

Helburu honen arabera, 177/2010 Dekretuan langileentzako hiru laguntza-linea hartzen dira kontuan familia eta lana bateragarri egiteko:

1. Seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak
2. Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden ahaideak zaintzeko eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketengatiko laguntzak.



3. Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak.

31/2015 Dekretuak sartu duen berrikuntza nagusia da errenta estandarizatuaren irizpidea aplikatzea programaren bidez emango diren laguntza guztien zenbatekoa zehazteko. 177/2010 Dekretuaren lehen testuan irizpide hau seme edo alaba adingabea zaintzeko langilea kontratatzeko laguntzei baino ez zitzaien aplikatzen.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko aurrekontuan, programari 32.577.100,00 euro esleitu zitzaizkion. Ekitaldian zehar ordaindutako laguntzen zenbateko osoa 23.924.765,91 eurokoa izan zen, eta horrek esan nahi du %73,44 gauzatu zela. Gastua honela banatu zen:

- 23.066.657,84 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen N linean, 14.620 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik %8,81 gizonak ziren, eta %91,19 emakumeak.

Guztizko gastuaren %22,71 (5.240.312,26 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta % 77,29 (17.826.345,60 euro) murrizketak diruz laguntzera.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera, guztizko zenbatekoaren:

- %19,33 (4.457.927,83 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen.
- %30,20 (6.965.849,93 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko.
- %50,47 (11.642.880,08 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.

- 647.940,97 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen D linean, 388 pertsona izan ziren linea horren onuradun; pertsona horien artetik %17,86 gizonak ziren, eta %82,14 emakumeak.

Guztizko gastuaren %13,67 (88.594,38 euro) eszedentziak diruz laguntzera bideratu zen, eta %86,33 (559.346,59 euro) murrizketak diruz laguntzera.

Laguntzen onuradunak bizi diren Lurralde Historikoaren arabera:

- %19,77 (128.033,99 euro) Arabako espedienteak ordaintzeko erabili zen.
- %26,28 (170.291,00 euro) Gipuzkoako espedienteak ordaintzeko.
- %53,95 (349.615,98 euro) Bizkaiko espedienteak ordaintzeko.

- 210.167,10 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko Z linean; 315 pertsona izan ziren linea horren onuradunak, pertsona horien artetik %30,05 gizonak ziren, eta % 69,95 emakumeak.



Gutzizko gastua honela banatu zen lurraldearen arabera:

- %14,29 (30.048,22 euro) Arabako espedienteetarako.
- %20,83 (43.789,28 euro) Gipuzkoako espedienteetarako.
- %64,88 (136.328,90 euro) Bizkaiko espedienteetarako.

2017. urtean, aurreko urteetan bezala, murrizketagatiko laguntzak mantendu dira, bai N lerroan bai D lerroan. Hala ere, aurreko ekitaldiko eszedentzia eskaera % 3,51 igoera izan du N lerroan eta %3,75 D lerroan. Gehienbat emakumeek eskatzen dituzte lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak. Halaber, D lerroak eskaera kopuruan goranzko joera mantentzen du.

Programako baliabide ekonomikoak era justuago batean banatzeko helburuarekin, 32/2015 DEKRETUAK hiru lerroetara zabaldu zuen errenta estandarizatua.

2016an, errenta estandarizatua guztiz aplikatu zen 3 lerroetan:

- N eta D lerroen eskatzaileen %65,55en errenta-maila errenta estandarizatuaren 20.000,00 euroren zenbatekotik beherakoa da.
- N eta D lerroen eskatzaileen %30,30 errenta estandarizatuaren 20.000,00-40.000,00 euro artean daude.
- N eta D lerroan, %4,15 daude 40.000,00 eurotik gorako errenta estandarizatuaren barruan.

Zaintzaileen Z lerroari dagokionez:

- Errenta estandarizatuaren 20.000,00 eurotik beherako zenbatekoan, eskaeren %4,80 daude.
- Errenta estandarizatuaren 20.000,00-40.000,00 euroren bitarteko zenbatekoan, eskaeren %78,82 daude.
- Errenta estandarizatuaren 40.000,00 eurotik gorako zenbatekoan, eskaeren %16,37 daude.

Aurrekontu-programarako ezarritako helburuak, ekintzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, adierazi behar dugu Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/20110 Dekretuaren 1. artikuluan a), b) eta d) ataletan ezarritako jarduketak egiteko 2017an diru-laguntzak emateko aurrekontuan hornitutako kopurua jakinarazten duen Aginduaren izapidetzea dela eta egindako memorian diru-laguntza horietarako aurrekontu-memorian bildu ziren magnitudeak eguneratu zirela, hain zuzen ere onuradunei zegozkien magnitudeak. Jarraian programarako ezarritako adierazleak, laguntzen magnitude eguneratuak eta haien gauzatze-gradua xehatuko dira:

- Adierazlea: seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziengatik edo lanaldi-murrizketengatik ematen diren laguntzak (Linea N). Magnitudea: 17.200. Pertsona onuradunak: 14.620.



Gauzatze-gradua: %85,00.

- Adierazlea: mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentziengatik edo lanaldi-murrizketengatik ematen diren laguntzak (Linea D). Magnitudea: 380. Pertsona onuradunak: 388. Gauzatze-gradua: %102,10.
- Adierazlea: 3 urtetik beherako adingabea zaintzeko langileak kontratatzeagatik ematen diren laguntzak (Linea Z). Magnitudea: 400. Pertsona onuradunak: 315. Gauzatze-gradua: %78,75.



1.- Izenburua

Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 14koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2017. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldeaz gaindiko urteroko jarduera programak egikaritzen laguntzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzailer soziokulturalentzako ikastaroak egitea, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

67 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 54k lortu dute diru-laguntza, eta beste 13ei hainbat arrazoiengatik ukatu zaie (eskatzaileek uko egiteagatik, deialdian eskatutako gutxieneko autofinantzaketara ez iristeagatik edo jardueren izaera eta xedeak deialdiaren xedearekin edo Gazteria Zuzendaritzaren jarduera-esparruekin lotura zuzena ez edukitzeagatik).

Betetze-maila egokitzat jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 60 izanik 54 proiektu lagundu baitira diruz. Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 535.832 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (536.000 €) %99,97, alegia.

- a) Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 361.740 euro.
- b) Dinamizatzailer soziokulturalen ikastaroak: 16.800 euro.
- c) Azkenik, urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 157.292 euro.

Diruz lagundutako jarduera horiek erabilgarriak eta beharrezkoak dira gazte-elkartegintza sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan lekua duten jarduera eta programak bereziki, lehen deskribatutakoak.

Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.



1.- Izenburua

Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 14koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2017. urtean gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak gauzatzen laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

23 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 14k diru-laguntza lortu dute, 1ek ezetz esan diote emandako diru-laguntzari eta 8ri ukatu egin zaie diru-laguntza jarduerak deialdian ezarritako betekizunekin bat ez datozelako.

Betetze-maila egokitzen jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 20 izanik 14 proiektu lagundu baitira diruz (proiektu horietatik batek 4 elkartruke jasotzen zituen eskaera berean). Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 140.657 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (145.000 €) %97, alegia.

Hala, diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.



1.- Izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzak proiektuak garatzeko diru-laguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 9koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinek garapen-lankidetzarako entitateei dei egiten baitie Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2017ko «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkez ditzaten.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko GGKEentzako diru-laguntza da, hiru hiletan Euskadiko 100 gazte gehienez hartuko dituzten lankidetzak proiektuak aurkez ditzaten. Programaren helburua da Euskadiko gazteak elkartasun eta parte-hartze balioetan sentsibilizatzea. GGKEek 600 euro jasotzen dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen kooperante bakoitzagatik.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

47 lankidetzak proiektu aurkeztu ziren, eta 464 gazte egin zuten eskaera; horietatik 220 hautatu ziren aurrena, eta ondoren, horietatik 100k hartu zuten parte. Gazte horiek lankidetzak proiektuetan hartu dute parte udako hiru hilabeteetan, Amerikako, Afrikako eta Asiako hainbat herrialdetan.

Betetze-maila egokitzat jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 100 izanik 100 gazte parte hartu dutelako. Halaber, 60.000 euroko diru-laguntzak eman dira guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren %100, alegia (60.000 €).

1993. urtean sortu zen programa eta, orduetik hona 2.200 gazte hartu dute parte, gutxi gorabehera, eta oso balorazio positiboa izan du beti, arrakasta handia du gazteen artean.

Euskadiko gazteei Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzak programetan parte hartzeko aukera eman nahi diegu, euren esperientziak gure gizartean elkartasun kultura sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko balio izan dezan.



1.- Izenburua

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko abenduaren 12koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena, «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako 2017ko deialdia egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

2017ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako proiektuak aurkezteko garapen-lankidetzarako erakundeei dei egiten dien Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Aginduan xedatutakoari jarraiki, hautatutako herrialde eta lankidetzaproiektu jakinetara 1987 eta 1995 urteen artean jaiotako 100 pertsona gehienez joateko erraztasunak ematea da diru-laguntza programa honen helburua.

Bidaia-gastuetarako eta, hala badagokio, hautatutako pertsonak destinoko herrialdean sartzeko bisaren gastuetarako programa honek 2017ko ekitaldirako guztira duen gehieneko zenbatekoa 155.000 eurokoa da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

47 lankidetzaproiektu aurkeztu ziren, eta 464 gaztek egin zuten eskaera; horietatik 220 hautatu ziren aurrena, eta ondoren, horietatik 100k hartu zuten parte. Gazte horiek lankidetzaproiektuetan hartu dute parte udako hiru hilabeteetan, Amerikako, Afrikako eta Asiako hainbat herrialdetan.

Adierazleen magnitudeari dagokionez, bidaia-kontratazioa aurrekontu-programan aurreikusita zegoen bezala egin da; horregatik betetze-maila egokitzat jotzen da.

1993. urtean sortu zen programa eta, orduetik hona 2.200 gaztek hartu dute parte, gutxi gorabehera, eta oso balorazio positiboa izan du beti, arrakasta handia du gazteen artean.

Euskadiko gazteei Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzaprogrametan parte hartzeko aukera eman nahi diegu, euren esperientziak gure gizartean elkartasun kultura sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko balio izan dezan.



1.- Izenburua

Gazte-ekipamenduen sarea toki esparruan bultzatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2017ko ekainaren 21ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Haren bitartez, tokiko eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-ekipamenduen sarea 2017an bultzatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautu eta deitzen da.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko diru-laguntzak ematea.

Azpimarratu behar da, deialdiaren xede den errealitatearen ezaugarriei dagokienez, tokiko erakundeentzako laguntza hauek Gobernu Kontseiluak 2014ko urriaren 28an onartutako Eusko Jaurlaritzaren Gazte Planeko gazteria politika integralaren neurrietako bati erantzuten diotela; zehazki, "7.2.1.- Tokian tokiko erakundeei laguntzak ematea, aukerako beste aisialdi-jarduera batzuk antolatzeko, eta gazteek erabiltzen dituzten ekipamenduak hobetzeko" helburuari, euskal gaztediaren egoerari buruzko diagnosian jasotako behar nagusietako bati erantzuteko.

Diruz lagundu daitekeen esparrua: Ekitaldian, espezifikoki 12-30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak hartzeko etxebizitzak eraikitzeko, berritzeko, egokitzeko edo handitzeko proiektuak egiteko gaituta dauden profesionalen proiektuen gastuak, bai eta halako obrak egiteko gastuak edo kostua ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

30 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 26k diru-laguntza lortu dute, eta beste 4 ukatu egin dira (1 deialdian ezarritako betekizunekin bat ez datorrelako eta 3 deialdiaren xedea ez betetzeagatik).

Betetze-maila egokitzat jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 20 izanik 26 proiektu lagundu baitira diruz. Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 289.884 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (290.000 €) %99,96, alegia.

Beraz, gazte-ekipamenduen funtzionamenduak eragin sozial handia suposatzen du sustapenari dagokionez, bai eta gazteen garapen pertsonalari eta taldekakoari dagokionez ere; izan ere, toki esparruko gazte-ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea euskal gazteriaren behar eta eskaeren erantzun instituzionalean sartzen da.